

Izena emateko jarraibideak adimen-desgaitasunaren lan-eskaintza publikoan



Izena emateko jarraibideak adimen-desgaitasunaren lan-eskaintza publikoan

1. Betekizunak

Betekizunak hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko bete behar dituzun betekizunak dira.

Hautaketa-prozesu honetan, betekizun hauek bete behar dira:

1. Espainiako nazionalitatea izatea.
2. Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.
3. 16 urte edo gehiago izatea eskabidea aurkezten duzunean.
4. % 33ko edo gehiagoko adimen-desgaitasun maila aitortuta izatea.
5. Administrazio Publikoan lan egitea debekatuta ez izatea diziplinazko espediente bat izateagatik edo beste arrazoi batzuegatik.
6. Lanpostu honen eginkizunak betetzeko gaitasuna eta osasuna izatea.
7. Inskripzio-tasak dagokion epean ordaintzea. Izena ematerakoan 4,09 € ordaindu beharko dituzu.



Titulua

Ez duzu hezkuntza sistemako titulu ofizialik izan behar hautaketa-proba hauetara aurkezteko.



2. Izen-ematea

Nork aurkez dezake eskabidea?



Zuk aurkez dezakezu.

Beste pertsona batek ere aurkez dezake ordezkatzeko zaituela eta horretarako baimena duela.

Noiz eman dezaket izena?



Urtarrilaren 7tik eskaera egin dezakezu 2025eko otsailaren 3ra arte.

Non eman dezaket izena?

Izena emateko bi modu dituzu:

Aurrez aurre



Internet bidez



Aurrez aurre:

Gizarte Etxeetan kokatzen diren Herritarren Arretarako Bulegoetara joan zaitezke.



San Martingo Bulego Teknikoetara ere joan zaitezke (Teodoro Dublang, 25) eta San Antonio kaleko 10. zenbakiko bulegoetara.



Eskatu alde zuretik hitzordua 945 16 11 00 telefonoan edo hurrengo [estekan](#).



Zure Nortasun Agiri Nazionala zurekin eraman beharko duzu..

Arreta ematen dizun pertsonak zure datu pertsonalez eta harremanetarako datuez galdetuko ditu.

Garrantzitsua da adieraztea
azterketa zein hizkuntzatan egin nahi duzun;
gaztelaniaz edo euskaraz.

Galdetuko dizu, baita ere
euskara **azterketa egin nahi baduzu**
edo tituluren bat baduzu.

Adierazi **egokitzapenik behar duzun.**



Adierazi egokitzapenik behar duzun.
Adibidez: beste desgaitasun bat duzulako,
proba irakur diezazuten behar duzulako,
haurdun zaudelako edo duela gutxi ama izan zarelako
eta zure haurrari edoskitzea behar duzu.



Zure kasua bada, bidali mezu elektronikoa bat
procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org helbideari
hori frogatzen duen txosten mediko bat erantsita.

Une horretan, tasa ordaindu beharko duzu.



4,09 € dira azterketa egiteko eskubideagatik.
Udalak ez du eskudiruzko ordainketarik onartzen.
Kreditu-txartelarekin ordain dezakezu
edo geroago banku-transferentzia bat egitea
adieraziko dizuten kontu-zenbakia.
Hitzorduan ezin bada izen-ematea amaitu,
zure datuak inprimaki batean
bete beharko dituzu.
Zure helbide elektronikoan jakinaraziko dizute
tasa ordain dezazun.

Oso garrantzitsua da **ordainketa**
2025eko otsailaren 3a baino lehen egitea.

Arreta ematen dizun pertsonak
inskripzioaren egiaztagiria emango dizu.



Interneten bidez

[Esteka](http://www.vitoria-gasteiz.org/desgaitasuna-epe) honetan eman dezakezu izena:

www.vitoria-gasteiz.org/desgaitasuna-epe



Ziurtagiri digitala edo
Herritarren Udal Txartela
eduki beharko duzu.

Ziurtagiri digitala
interneten izapideak modu seguruan egiteko
erabiltzen den dokumentua da.

Herritarren Udal Txartela
Herritarren Arretarako Bulegoetan
eska dezakezu.

Zure datu pertsonalak
eta harremanetarako datuak
bete beharko dituzu.

Azterketaren hizkuntza ere
adierazi beharko duzu:
euskaraz edo gaztelaniaz.

Garrantzitsua da adieraztea
euskara azterketa egin nahi duzun
edo tituluren bat duzun.

Adierazi **egokitzapenik behar duzun**.



Adierazi egokitzapenik behar duzun.
Adibidez: beste desgaitasun bat duzulako,
proba irakur diezazuten behar duzulako,
haurdun zaudelako edo duela gutxi ama izan zarelako
eta zure haurrari edoskitzea behar duzu.



Zure kasua bada, bidali mezu elektronikoa bat
procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org helbideari
hori frogatzen duen txosten mediko bat erantsita.

Izena eman ondoren, izena eman izanaren egiaztagiria eskuratu ahal izango duzu "Nire hautaketa-prozesuak" web atalean.



Une horretan tasa banku-txartelarekin ordaintzea edo geroago transferentzia bat egitea aukeratu ahal izango duzu.

Garrantzitsua da otsailaren 3a baino lehen egitea.

3. Dokumentazioa

Araban % 33ko desgaitasun intelektuala edo handiagoa baduzu, ez duzu inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.



Beste probintzia edo autonomia-erkidego batean % 33ko edo gehiagoko desgaitasun intelektuala aitortua baduzu, bidali ziurtagiria **2025eko otsailaren 15a baino lehen** procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org helbidera.

4. Harremanetan jartzeko:



Zalantzarik baduzu,

hona jo dezakezu:

procesos.selectivos@vitoria-gasteiz.org
[EPE honetako Herritarren Postontzira](#)



edo 010 telefonora deitu.



Prozesu honi buruzko informazio guztia hemen aurki dezakezu:

www.vitoria-gasteiz.org/desgaitasuna-epe